]

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA BIZKAIKO ENPRESARIEN KONFEDERAZIOA, CEBEK, ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA "ENPRESA-IRAUNKORTASUNA DESTINO-2030-HELBURU" PROIEKTUA GARATZEKO 2022KO EKITALDIAN.

CONVENIO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y LA CONFEDERACIÓN EMPRESARIAL DE BIZKAIA –CEBEK- PARA PROMOVER EL PROYECTO "SOSTENIBILIDAD EMPRESARIAL DESTINO-2030-HELBURU" EN EL EJERCICIO 2022.

Bilbo, 2022ko irailaren 21a

En Bilbao, a 21 de septiembre de 2022

BILDU DIRENAK

REUNIDOS

Ainara Basurko Urkiri andrea erakunde horren izenean eta beraren ordezkari gisa, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2022ko irailaren 20ko Erabakiaren bidez emandako ahalmenik erabiliz.

De una parte, Ainara Basurko Urkiri, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, actuando en virtud de las facultades otorgadas mediante Acuerdo de la Diputación Foral de fecha de 20 de septiembre de 2022.

Eta, bestetik, Francisco Javier Azpiazu Lasuen jaunak CEBEk, Bizkaiko Enpresarien Konfederazioaren (IFZ: G48089908) izenean eta eskuordetzan (horren egoitza Bilbon dago, Bizkaian, kale Nagusiaren 50. Zenbakian, 5.enean, 48011) 1999ko uztailaren 30ean Jose Eduardo García Pérez notarioaren aurrean 1.277 zenbakiko eskrituraren bidez eman zitzaizkion ahalak erabiliz..

Y de otra parte, Francisco Javier Azpiazu Lasuen, en nombre y representación de la Confederación Empresarial de Bizkaia, CEBEK, CIF G48089908, con domicilio en Bilbao, provincia Bizkaia, calle Gran Vía 50-5ª, CP 48011, en virtud de poderes otorgados con fecha 30 de julio de 1999 mediante escritura número 1.277 ante el notario Jose Eduardo García Pérez.

Aldeek aitortzen dizkiote elkarri honako hitzarmena gauzatzeko beharrezko gaitasuna eta eskumena, eta hauxe

Las partes se reconocen la capacidad jurídica necesaria para suscribir el presente convenio y en su virtud

ADIERAZTEN DUTE

EXPONEN

LEHENENGOA

PRIMERO

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren helburua da Bizkaian aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzen laguntzea da, Bizkaiko enpresen artean lehiakortasun iraunkorra eta nazioartekotzea sustatuz eta, aldi berean, gure lurraldearen garapen orekatua erraztuz. Estrategia integral bat garatzen ari da horretarako, bost jarduketa-ardatz hauetan oinarritua: ekintzailetza eta azelerazioa, berrikuntza eta lehiakortasuna, erakarpena eta interkonexioa, lurralde oreka eta talentua eta ezagutza; hori guztia balio erantsiko zerbitzuak modu eraginkorrean emateko konpromisotik abiatuta.

El Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia tiene como objetivo contribuir a la creación de riqueza y empleo de calidad en Bizkaia, impulsando la competitividad sostenible y la internacionalización en el ámbito empresarial de Bizkaia, al tiempo que facilitar el desarrollo equilibrado del Territorio. Para ello, está desarrollando una estrategia integral basada en cinco ejes de actuación que aúnan emprendimiento y aceleración, innovación y competitividad, atracción e interconexión, equilibrio territorial y talento y conocimiento, todo ello desde el compromiso de una prestación eficiente de servicios de valor añadido.

Enpresak funtsezko elementuak dira estrategia hori garatzeko, jarduera ekonomikoaren funtsezko eragile dinamizatzaileak baitira. Horrez gain, hazkunde jasangarriak Nazio Batuen 2030 Agendarekin bat egitea eskatzen du Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak (GIH) lortzeko, 15 urteko epean muturreko pobreziarekin, berdintasunik ezarekin eta injustiziarekin amaitu eta klima aldaketa zuzentze aldera. Guzti hori, abiapuntutzat hartuta erronka horri aurre egiteko ezinbestekoa dela pertsona, erakunde, enpresa eta gobernu guztien parte hartzea. Ildo horretan, Nazio Batuek ETE-ek GIH lortzerakoan duten garrantzia azpimarratu dute, enpresa hauek mundu mailan enplegu eta barne produktu gordinaren sortzaileak direlako. Pobrezia murrizteko eta garapena sustatzeko funtsezko faktorea dira eta aukera ekonomikoak eta beste mota batzuetakoak sortzen dituzte, hau da, pertsona askoren beharrizan sozialekiko erantzuna eta gizarteratzeko oinarri izan daitezkeenak.

Las empresas son un elemento fundamental en el desarrollo de esta estrategia, al ser agentes dinamizadores esenciales de la actividad económica. Además de eso, un crecimiento sostenible debe estar alineado con la Agenda 2030 de Naciones Unidas en la consecución de los 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible, ODS, para que en el plazo de 15 años se acabe con la pobreza extrema, la desigualdad y la injusticia y se corrija el cambio climático. Todo ello partiendo de la idea de que para lograr este reto es imprescindible la implicación de todas las personas, organizaciones, empresas y gobiernos. En este sentido, Naciones Unidas ha destacado la importancia de la participación de las pymes en la consecución de los ODS como generadoras de empleo y de producto interior bruto a nivel mundial. Son un factor clave en la reducción de la pobreza y en el fomento del desarrollo, generando posibilidades, económicas y de otros tipos, que pueden ser la respuesta a las necesidades sociales de muchas personas y servir de base para la inclusión.

CEBEK Bizkaiko Enpresarien Konfederazioa enpresa-erakunde bat da, eta federazioek, elkarteek eta enpresek osatzen dute. Haren misioa honako hauxe da: elkartutakoen interesak ordezkatzea eta defendatzea gizartean eta erakunde publiko nahiz pribatuetan, baldin eta interes horiek elkartea osatzen duten jarduerari eragiten badiote, betiere enpresen lehiakortasunaren hobekuntza bilatuz.

La Confederación Empresarial de Bizkaia, CEBEK, es la organización empresarial de adhesión voluntaria e integrada por federaciones, asociaciones y empresas, cuya misión es la representación y defensa de los intereses de sus asociadas ante la sociedad y las instituciones públicas y privadas, que afectan o inciden en la actividad de quienes la componen, buscando siempre la mejora de la competitividad de las empresas.

CEBEKen erronketako bat Bizkaiko enpresek Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) eta beren inplikazioak ezagutzea da, bai eta helburuok lortzen lagun dezaketela sentitzea ere, ohitura jasangarrien eta boluntariotza korporatiboaren bidez. Horretarako, “Enpresa-iraunkortasuna Destino-2030-Helburu” proiektua sortu du, 2030 Agenda bete dadila sustatzeko egingo diren jarduerak identifikatzen eta antolatzen dituena, betiere, garapen iraunkorrerako hiru dimentsioak (soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa) erdigunean jarrita. Hartara, CEBEKek Bizkaiko enpresa txiki eta ertainei eskura jartzen dizkie GIHak ezartzeko beharrezkoak diren tresnak.

Uno de los retos planteados por CEBEK es incrementar que las empresas de Bizkaia conozcan los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) y sus implicaciones y se sientan invitadas a contribuir a su logro incorporando hábitos sostenibles y el voluntariado corporativo. Para ello, ha diseñado el proyecto “Sostenibilidad empresarial Destino-2030-Helburu” en el que se identifican y alinean las actividades específicas a desarrollar para impulsar el cumplimiento de la Agenda 2030, poniendo siempre en el centro las tres dimensiones para el desarrollo sostenible, la social, la económica y la medioambiental. De esta manera, CEBEK facilita a las pymes de Bizkaia los instrumentos necesarios para la implementación de los ODS.

“Enpresa-iraunkortasuna Destino-2030-Helburu” proiektua hainbat ikuspegitan garatzen da; besteak beste, honako hauek nabarmentzen dira: 2030 Agendaren eta GIHen hedapena, Boluntariotza Korporatiboari bultzada ematea, GIHak enpresa-estrategian sartzea erraztea eta helburuak lortzeko aliantzak bultzatzea.

El proyecto “Sostenibilidad empresarial Destino-2030-Helburu” se desarrolla en varias perspectivas entre las que destacan la difusión de la Agenda 2030 y los ODS, el impulso al Voluntariado Corporativo, facilitar la incorporación de los ODS a la estrategia empresarial e impulsar alianzas para lograr los objetivos”

Hitzarmen honen xede den proiektua da 2022ko ekitaldian jarraipena ematea "Enpresa-iraunkortasuna Destino-2030-Helburu" proiektuari ematen zaion bultzadari.

El proyecto objeto de este Convenio consiste en dar continuidad durante el ejercicio 2022 al apoyo al proyecto "Sostenibilidad empresarial Destino-2030-Helburu".

Bizkaiko enpresek lurraldeko bizi-baldintzak eta ekitatea hobetzen laguntzeko baldintzak errazten dituen proiektua da.

Se trata de un proyecto que facilita condiciones para que las empresas de Bizkaia mejoren su contribución a la mejora de las condiciones de vida y la equidad en el territorio.

Hortaz, bat datoz Bizkaiko Foru Aldundiaren eta CEBEKen interesak eta helburuak Garapen iraunkorreko Helburuak sustatzean enpresa munduan.

Existe, por tanto, una coincidencia de intereses y objetivos entre la Diputación Foral de Bizkaia y CEBEK para promover los Objetivos de Desarrollo Sostenible desde el mundo empresarial.

BIGARRENA

SEGUNDO

Hitzarmen honen xedea da Bizkaiko Enpresarien Konfederazioari zuzeneko dirulaguntza izenduna emateko baldintzak eta konpromisoak ezartzea, "Enpresa-iraunkortasuna Destino-2030-Helburu" proiektua garatzeko.

El presente convenio tiene como finalidad establecer las condiciones y compromisos asociados a la concesión de una subvención directa nominativa a la Confederación Empresarial de Bizkaia para promover el proyecto "Sostenibilidad empresarial Destino-2030-Helburu".

HIRUGARRENA

TERCERO

Bizkaiko Foru Aldundiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorraren aldeko konpromiso sendoari eusten dio, eta, horregatik, Ekonomia Sustatzeko Sailaren jarduera guztiak genero-ikuspegia kontuan hartuta eta oraindik dauden desberdintasunak murrizteko neurriak finkatuta egiten dira, batez ere enpresa-munduan.

La Diputación Foral de Bizkaia mantiene un firme compromiso a favor de la efectiva igualdad de mujeres y hombres, y, por ello, todas las actuaciones que realiza el Departamento de Promoción Económica se desarrollan teniendo en cuenta la perspectiva de género y fijando medidas tendentes a reducir las desigualdades aún existentes.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren aldeko xedapen batzuk ezartzen ditu. Beraz, erabakiaren eremuan garatzen diren jarduketek genero-ikuspegia hartu beharko dute kontuan. Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foru Planak esparru estrategikoa eskaintzen du, Bizkaiko Foru Aldundiaren berdintasun-arloko politika publikoak garatzeko, 2021-2024 ekitaldietan.

La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres establece disposiciones en favor de una efectiva igualdad de mujeres y hombres. En consecuencia, todas las actuaciones que se desarrollen en el marco de este acuerdo deberán tener en cuenta la perspectiva de género. El VI Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Bizkaia ofrece el marco estratégico para el desarrollo de las políticas públicas en materia de igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia durante los ejercicios 2021-2024.

Hitzarmen hau izapidetzean otsailaren 18ko 4/2005 Legearen aurreikusitako generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostena sartu da. Txosten hau idazteko aplikatu dira azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan ezarritako gidalerroak.

Se incorpora a la tramitación de este convenio el informe de evaluación previa de impacto en función de género previsto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, en cuya redacción se han aplicado las directrices establecidas en el Decreto Foral 141/2013, de 19 de noviembre.

LAUGARRENA

CUARTO

Hitzarmena egiteko, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jarduera-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa.

En la elaboración del convenio se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral.

BOSTGARRENA

QUINTO

Nahitaezkoa da hitzarmen honen eremua eta horretan gauzatu behar diren alderdiak zehaztea. Hori dela eta, Dirulaguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko (aurrerantzean 5/2005 Foru Araua) 20.2. artikuluan xedatu denez, zuzenean eman daitezke Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretan ezarritako izendun dirulaguntzak, hitzarmenetan eta dirulaguntza horien araudian ezarritakoaren arabera. 26.1. artikuluan, berriz, hitzarmen horiek dirulaguntzak bideratzeko ohiko tresnak izango direla xedatu da.

Es preciso determinar el ámbito de este convenio y los aspectos que en el mismo se han de materializar ya que la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral (en adelante Norma Foral 5/2005) dispone en su artículo 20.2 que podrán concederse de forma directa las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia, en los términos recogidos en los convenios y en la normativa reguladora de estas subvenciones, y en el artículo 26.1 establece que los convenios serán el instrumento habitual para canalizar estas subvenciones.

Beste alde batetik, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako 5/2005 Foru Araua garatzeko Dirulaguntzen Arautegiaren (aurrerantzean Dirulaguntzei buruzko Foru Arautegia) 50. artikuluan ezarri da kasu hauetan dirulaguntza emateko egintza edo hitzarmena oinarri araupetzailetzat hartuko dela Dirulaguntzei buruzko Foru Arauan xedatutakoaren ondoreetarako, eta egintzaren edo hitzarmenaren gutxieneko edukia zehaztu du.

Por su parte, el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo (en adelante Reglamento Foral de Subvenciones), en su artículo 50, prevé que en estos supuestos el acto de concesión o el convenio tendrá el carácter de bases reguladoras de la concesión a los efectos de lo dispuesto en la Norma Foral de Subvenciones, y determina el contenido mínimo del mismo.

Horrenbestez, aipatutako xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz, bi aldeek adostu dute hitzarmen hau sinatzea. Hona hemen lankidetzako hitzarmena arautuko duten klausulak

Así pues, de conformidad con lo establecido en las citadas disposiciones, ambas partes acuerdan suscribir el presente convenio el cual se regirá por las siguientes

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak egin beharreko jarduketak

Primera.- Objeto del convenio y actuaciones a realizar por cada sujeto

Hitzarmen honen helburua da CEBEK Bizkaiko Enpresarien Konfederazioari, IFZ G48089908, zuzeneko dirulaguntza izenduna emateko baldintzak eta konpromisoak ezartzea. Dirulaguntza horren xedea enpresa munduan Garapen Irakunkorreko Helburuak onar daitezen sustatzeko “Enpresa-iraunkortasuna Destino-2030-Helburu” proiektua garatzen jarraitzea da.

Este convenio tiene como finalidad establecer las condiciones y compromisos asociados a la concesión de una subvención directa nominativa a la Confederación Empresarial de Bizkaia CEBEK, con NIF G48089908, cuyo objeto es dar continuidad al proyecto “Sostenibilidad empresarial Destino-2030-Helburu” para promover la adopción de los Objetivos de Desarrollo Sostenible en el mundo empresarial.

Hori garatzeko CEBEKek honako jarduera hauek egingo ditu:

- GIH hedapena eta trebakuntza: CEBEK COMPANIES4SDGS proiektuaren parte da, eta hedatzeko kanpaina global honetan parte hartzera gonbidatzen ditu Bizkaiko enpresak, material egokiak eskainita eta 2030 Agendan eta GIHetan gaitzeko jardunaldiak antolatuta, eta ETEei aplikatzeak dakartzan onurei buruzkoak.

- Boluntariotza Korporatiboa (BK) bultzatzea, batez ere egoera ahulean dauden emakumeei laguntzeko "Emaktiva", baso ekosistemak lehenerazteko "Gure basoak, gure etorkizuna", lehen hezkuntzako ikasleei GIHak hurbiltzeko "GIH Eskolara" eta "Pro Bono Birtual" enpresa anitzeko programa, kudeaketan premiak dituzten gizarte erakundeen alde.

- ETEei laguntza ematen die GIHak beren estrategietan integratzeko, jarraibideak ezartzeko eta ondoren enpresa parte-hartzaileetan garatzeko balio duten ezarpen-proiektu errealak garatuta.

- Aliantzak bultzatzea, bi alderditan: alde batetik, CEBEKek gidatutako proiektuetan beste erakunde batzuekin akordioak bultzatzea, GIHetara iristeko, eta, bestetik, CEBEKek beste erakunde batzuek gidatutako ekimenetan parte hartzea.

CEBEKen eta Bizkaiko Foru Aldundiko Sustapen Ekonomikoko Sailaren helburuak bat datozenez enpresa munduan Garapen Iraunkorreko Helburuak sustatzean, bidezkoa da CEBEKi dirulaguntza izenduna ematea "Enpresa-iraunkortasuna Destino-2030-Helburu" proiektua garatzeko.

Azaldutako guztiak egiaztatzen du programa honek interes publikoa, soziala eta ekonomikoa duela, eta Bizkairako onuragarria dela, eta deialdi publiko bat ez erabiltzea justifikatzen du, proposatzen diren helburuak lortzeko.

Bigarrena.- Erakunde onuraduna.

Laguntzaren erakunde onuraduna Bizkaiko Enpresarien Konfederazioa da (IFZ: G48089908).

En desarrollo del mismo, CEBEK va a realizar las siguientes actuaciones:

- Difusión y formación en ODS: CEBEK forma parte del proyecto COMPANIES4SDGS e invita a las empresas de Bizkaia a sumarse a esta campaña global de difusión ofreciéndoles materiales adecuados y organizando jornadas de capacitación en Agenda 2030 y los ODS y sobre los beneficios de su aplicación para las pymes.

- Impulso del Voluntariado Corporativo (VC), especialmente con los proyectos "Emaktiva" de apoyo a mujeres en situación de vulnerabilidad, "Gure basoak, gure etorkizuna" de restauración de los ecosistemas forestales, "ODS eskolara" para acercar los ODS al alumnado de primaria y el programa multiempresa "Pro Bono Virtual" para ayudar a entidades sociales con necesidades en su gestión.

- Apoyo a las pymes para integrar los ODS en sus estrategias mediante el desarrollo de proyectos reales de implantación que sirvan para establecer las pautas y su posterior desarrollo en las empresas participantes.

- Impulso de alianzas, en la doble vertiente de impulsar acuerdos con otras instituciones en proyectos liderados por CEBEK para llegar a los ODS y de participación de CEBEK en iniciativas lideradas por otras organizaciones.

Dada la coincidencia de objetivos y fines de CEBEK con los del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia por promover los Objetivos de Desarrollo Sostenible en el mundo empresarial, procede otorgar una subvención nominativa a CEBEK para apoyar el proyecto "Sostenibilidad empresarial Destino-2030-Helburu".

Todo lo expuesto acredita el interés público, social y económico de este programa que redunda en beneficio para Bizkaia y justifica la no utilización de una convocatoria pública para conseguir los objetivos que se plantean.

Segunda.- Entidad beneficiaria.

La entidad beneficiaria de la ayuda es la Confederación Empresarial de Bizkaia, con NIF G48089908.

Onuradunak bete egiten ditu Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide orokorra erregulatzeko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluan xedatutako betekizun guztiak, dirulaguntzaren onuradun izateko bete behar direnak.

Beste alde batetik, Foru Arauko 13. artikuluaren arabera, ezarritako betebehar guztiak bete beharko ditu.

Dirulaguntzaren erakunde onuradunak ez du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan aurreikusitako debekurik, eta dirulaguntza honen xedea ez da sexuaren ziozko bereizkeria dakarren jarduera edo ekintza bat.

Hitzarmen hau sinatzeak esan nahi du onuradunak baimena ematen duela Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenean egiazta dezan onuradunak betetzen dituela xedapen indardunek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta elkarreragingarritasunaren bidez lor daitezkeen gainerako datuak.

La beneficiaria cumple con los requisitos establecidos en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral para tener la consideración de persona beneficiaria de la subvención.

Por otro lado, la entidad está sujeta al cumplimiento de la totalidad de las obligaciones establecidas en el artículo 13 de la citada Norma Foral.

La entidad beneficiaria de la subvención no está incursa en ninguna de las prohibiciones para concurrir previstas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la igualdad de mujeres y hombres ni el objeto de esta subvención constituye una actividad o acción discriminatoria por razón de sexo.

La firma del presente convenio conlleva la autorización de la entidad beneficiaria para la comprobación de manera directa por parte de la Diputación Foral de Bizkaia del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social y el resto de datos que puedan ser obtenidos mediante interoperabilidad.

Hirugarrena.-Hitzarmenaren indarraldia

Hitzarmen hau formalizatzen den unean jarriko da indarrean, eta hitzarmenaren ondoriozko betebeharrak betetzen direla egiaztatu arte luzatuko da haren indarraldia; formalizatzen denetik lau urteko epean aurreikusten da hori.

Hitzarmen honetan jasotako jarduerak gauzatzeko epea 2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra artekoa izango da.

Onuradunek Ekonomia Sustatzeko Sailari aurkeztu beharko diote, hiru (3) hilabeteko epean jarduerak gauzatzeko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita, dirulaguntza emateko egintzan ezarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako helburuak lortu direla egiaztatzen duen justifikazioa, hitzarmen honetan ezarritako moduan. Hori guztia hitzarmen honen ondorioz erakunde onuradunari ezarritako betebeharrei buruz araudi espezifikoak ezartzen duena alde batera utzi gabe.

Tercera.- Plazo de vigencia del convenio

Este convenio entrará en vigor en el momento de su formalización y su vigencia se extenderá hasta la verificación del cumplimiento de las obligaciones derivadas del mismo que se estima en un plazo de cuatro años desde su formalización.

El plazo para la ejecución de las actividades previstas en este convenio se fija desde el 1 de enero hasta el 31 de diciembre de 2022.

La entidad beneficiaria deberá presentar en Departamento de Promoción Económica, en un plazo de tres (3) meses a contar desde la finalización del plazo de ejecución, la justificación del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos en el acto de concesión de la subvención, mediante la forma establecida en el presente convenio. Todo ello sin perjuicio de lo que establezca la normativa específica en relación a las obligaciones impuestas a la entidad beneficiaria como consecuencia del este convenio.

Laugarrena.- Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebehar eta konpromiso ekonomikoak

Dirulaguntzaren zenbatekoa hogeita hamar mila eurokoa (35.000,00 euro) da, hau da, baimendutako aurrekontu kredituaren guztizko zenbatekoa. Aipatu kreditua honako aurrekontu-partidaren kargura da: 08.02/426.107/45100, 2018/0024 "Enpresa-iraunkortasuna" izeneko proiektua, 2022 ekitaldiko aurrekontukoa.

Hitzarmena onartu ostean ordainduko da dirulaguntza. Hala ere, ordainketa aurreratua izan arren, ez da beharrezkoa erakunde onuradunak bermea eratzea, ez delako antzematen hitzarmen honen bitartez bere gain hartu dituen betebeharrak ez betetzeko arriskurik CEBEK Bizkaiko enpresa-elkarte adierazgarriena baita, Bizkaiko Foru Aldundiaren ohiko laguntzailea; dirulaguntza ugari jaso ditu azken ekitaldietan, bai hitzarmenaren xede den proiektuaren aurreko edizioetarako, bai beste proiektu batzuetarako, eta aurreko urteetan emandako dirulaguntzak behar bezala justifikatu baititu.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira 2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egindakoak, baldin eta diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten badiote eta jarduera egiteko behar-beharrezkoak badira. Dena den, behar bezala justifikatuta egon behar dira, indarrean dagoen araudiarekin bat, eta hitzarmen honetan ezarritako justifikazio-aldia amaitzen den egunean ordainduta, hau da, hiru (3) hilabeteko epean jarduerak gauzatzeko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Honakoak izango dira diruz lagun daitezkeen gastuak:

- Diruz lagundutako jarduera burutzeko lanari dagozkion barneko langileen gastu zuzenak. Kontzeptu horren barruan sartuko dira soilik soldatek eta gizarte kargek (Gizarte Segurantza) erakunde eskatzaileari eragiten dizkioten langileriaren gastuak.

- Jardueraren zati bateko azpikontratazioak.

- Jardueraren xedeari zuzenean lotutako kanpoko zerbitzuak.

- Diruz lagundutako jarduerari beren-beregi lotutako beste gastu batzuk, behar bezala frogatzen badira.

Cuarta.- Obligaciones y compromisos económicos de las partes

La cuantía de la subvención asciende a treinta mil euros (35.000,00 euros), que es el importe total del crédito presupuestario autorizado. Dicho crédito está designado con cargo a la partida presupuestaria 08.02/426.107/451.00, proyecto presupuestario 2018/0024 "Sostenibilidad empresarial" del presupuesto del ejercicio 2022.

El pago de la subvención se realizará a la firma del presente convenio. No obstante, a pesar de tratarse de un pago anticipado, no resulta necesario la constitución de garantía por parte de la entidad beneficiaria por no apreciarse riesgo de que incumpla las obligaciones asumidas en virtud de este convenio dado que CEBEK es la asociación empresarial más representativa de Bizkaia, colaboradora habitual de la Diputación Foral de Bizkaia, que ha recibido un número importante de subvenciones en los ejercicios recientes tanto para ediciones anteriores del proyecto objeto del convenio y como para otros proyectos, y ha justificado satisfactoriamente las subvenciones concedidas en años anteriores.

Se considerarán gastos subvencionables, los realizados desde el 1 de enero al 31 de diciembre de 2022 que respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad subvencionada y resulten estrictamente necesarios para su realización. En todo caso, deberán estar correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor y pagados a la fecha de finalización del periodo de justificación establecido en este convenio, esto es, en el plazo de tres (3) meses a contar desde la finalización del plazo de ejecución.

Se considerarán subvencionables los siguientes costes:

- Gastos directos de personal interno imputables al proyecto. Se entenderán en este concepto aquellos que correspondan a los gastos directos de personal por costes salariales y cargas sociales por cuenta de la entidad solicitante (Seguridad Social).

- Subcontrataciones parciales de la actividad.

- Servicios externos directamente vinculados al objeto de la actividad.

- Otros gastos debidamente justificados directamente ligados al desarrollo de la actividad subvencionada.

- Zeharkako kostuak.

BEZagatik dirulaguntza emango da erakunde onuradunak egiaztatzen badu ezin dezakeela berreskuratu edo konpentsaziorik jaso.

Ez dira diruz laguntzeko moduko gastuak izango, inola ere, ondoko hauek:

- Zeharkako zergak baldin eta horiek berreskuratzeko edo konpentsatzeko modukoak badira, eta ezta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

- Bankuetako kontuetako interes zordunak.

- Administrazio eta zigor arloko interesak, errekarguak eta zehapenak.

- Epaitegietako prozeduretako gastuak.

Erakunde onuradunak zeharkako kostuak diruz lagundu den jarduketari egoztekoak izango dira zentzuz horri dagokion zatian, hau da, orokorrean onartuta dauden kontabilitateko oinarriak eta arauek betez eta, hau guztia gorabehera, aipatu diren kostu horiek era eragingarrian eta errealean egin den jardueraren aldikoak diren neurrian.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko kontratuen arloan kontratu txikietarako indarrean dagoen araudian ezarritako zenbatekoak baino, onuradunak hiru enpresa hornitzaileren eskaintzak eskatu beharko ditu gutxienez, zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun eta zerbitzuok hornitu edo egiten dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi hori behar bezala azaldu behar da justifikazioan

Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan jaso behar dira haien arteko hautapenerako irizpideak eraginkortasuna eta ekonomia izango dira. Eskaintza ekonomiko hoberena hautatzen ez bada, arrazoiak azaldu behar dira txosten batean.

Bosgarrena.- Erakunde onuradunaren beste betebehar batzuk

- Costes indirectos.

El IVA será subvencionable cuando la entidad beneficiaria lo abone efectivamente y acredite no ser susceptible de recuperación o compensación.

En ningún caso serán gastos subvencionables:

- Los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación ni los impuestos personales sobre la renta.

- Los intereses deudores de las cuentas bancarias.

- Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.

- Los gastos de procedimientos judiciales.

Los costes indirectos habrán de imputarse por la entidad beneficiaria a la actividad subvencionada en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo con principios y normas de contabilidad generalmente admitidas y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al período en que efectivamente se realiza la actividad.

Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas para el contrato menor en la normativa vigente en materia de contratos del sector público, la beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contratación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención circunstancia que deberá quedar explicada debidamente en la justificación.

La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

Quinta.- Otras obligaciones de la entidad beneficiaria

Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoaren arabera, dirulaguntzaren xedea gauzatzeko agindua jasotzen duen entitateak honako hauek bete behar ditu: lege horretan ezarritako printzipio orokorrak errespetatu behar dituzte entitateek, beren lanaren barruko estatistikak genero ikuspegiaren arabera egokitu beharko dituzte, ez dute hizkera sexistarik erabiliko eta emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatu behar dute eratzen diren batzordeetan eta lan taldeetan.

La entidad a la que se le encomiende la ejecución del objeto de la subvención, de conformidad con lo previsto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero de Igualdad entre mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, deberá respetar los principios generales previstos en la misma, adecuar las estadísticas que formen parte de su trabajo a una perspectiva de género, realizar un uso no sexista del lenguaje y garantizar una representación equilibrada entre mujeres y hombres en la comisión y equipos de trabajo que se constituyan.

Gainera, erakunde onuradunak emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatu beharko du lanpostuen definizio, sarbide, kontratazio eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonal, lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzearen arloan, lanaren kalitate eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindika, ordezkaritza eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak bermatua.

La entidad beneficiaria, además, deberá promover la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral, duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias.

Emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen zaindu beharko du eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.

También deberá velar porque el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

Onuradun den erakundeak euskara erabili beharko du diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan. Era berean, entitate onuradunak bere jardueraren berri herritarrei emateko erabilitako liburuxka, kartel edo beste edozein euskarritan bi hizkuntza ofizialak erabili beharko ditu, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpide ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren 13.3 eta 4 artikuluetan ezarritakoarekin bat.

La entidad beneficiaria deberá utilizar el euskera en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada. Igualmente, en todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado por la entidad beneficiaria para dar publicidad de su actividad a la ciudadanía deberán utilizarse las dos lenguas oficiales, de acuerdo con lo establecido en el artículo 13.3 y 4 del Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales.

Onuradunak Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 8. 9. eta 10. artikuluetan gardentasunari eta publizitateari dagokie ezartzen diren betebeharrak ere bete beharko ditu. Arau horren 2. artikuluarekin bat:

La entidad beneficiara también deberá cumplir las obligaciones de transparencia y publicidad contempladas en los artículos 8, 9 y 10 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de transparencia de Bizkaia que le será de aplicación si durante un ejercicio

aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euroren edo gehiagoren laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituztenei edo haien urteko diru-sarrera guztien % 40 Foru-Aldundien laguntza edo dirulaguntza publikoa denean, betiere gutxienez 5.000 eurora iristen badira.

presupuestario percibe de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos la cuantía de 100.000 euros o cuando el 40% del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen, como mínimo, 5.000 euros.

Seigarrena.- Jarraipen zaintza eta kontrolerako mekanismoak, hitzarmenaren betearazpenari eta hartutako konpromisoei aplikatzekoak.

Jasotzen den zenbatekoa hitzarmenaren xederako baino ez da erabiliko, bertan ezarritakoak zehatz betez. Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiaren egiaztapen jardueren, Ogasun eta Finantza Sailari dagozkion finantza kontrol eta auditoretza jardueren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren fiskalizazio prozeduren pean jarriko da.

Onuradun den erakundeak nahitaez justifikatu beharko du bete egiten dituela dirulaguntza emateko edo baliatzeko betekizunak eta baldintzak, bai eta jarduera egin duela eta haren helburua bete duela ere.

Dagokion funtsen aplikazioari buruzko justifikazioa Ekonomia Sustatzeko Sailean egin beharko da hiru (3) hilabeteko epean jarduerak gauzatzeko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

34/2010 Foru Dekretuko 57.artikuluaren arabera justifikazio-kontua; horrekin batera gastuen frogagiriak aurkeztuta baten bitartez frogatuko da ezarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako helburuak lortu direla, eta dokumentu hauek jaso beharko ditu:

1. Jarduera-memoria; memoria horretan, honako hauek jasoko dira: helburuak eta horien betetze-maila.

Bereziki, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan:

- emandako zerbitzuaren azken onuradunei edo erabiltzaileei buruzko informazioa eman beharko du memoriak, sexuaren arabera bereizita, bai eta erakundearen titularrei eta plantillari buruzkoa ere bai eta, hala badagokio,

Sexta.- Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos.

El importe recibido se utilizará para el destino específico objeto de este convenio, con estricta sujeción a los términos establecidos y se someterá a las actuaciones de comprobación por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, en su caso, y a las de control financiero y auditoría que corresponden al Departamento Foral de Hacienda y Finanzas y a los procedimientos fiscalizadores del Tribunal Vasco de Cuentas.

La entidad beneficiaria está obligada a justificar el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinan la concesión o disfrute de esta subvención.

La justificación de la aplicación de la subvención recibida como consecuencia de la firma del presente Convenio deberá presentarse en el Departamento de Promoción Económica en el plazo de tres (3) meses a contar desde la finalización del plazo de ejecución.

La justificación del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos deberá realizarse mediante el sistema de cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto previsto en el artículo 57 del Decreto Foral 34/2010 y deberá contener la siguiente documentación:

1. Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

En particular, en materia de igualdad de mujeres y hombres:

- la memoria deberá proporcionar la información desagregada por sexo de las personas beneficiarias o usuarias finales del servicio prestado y de las personas titulares de la entidad y de su plantilla, así como de la plantilla de la entidad

dirulaguntzaren xede den zerbitzua emateko kontratatu den erakundeko plantillari buruzkoa ere, ahal ez den kasuetan izan ezik. Egoera hori behar bezala justifikatu beharko da,

- era berean, agiri bidez egiaztatu beharko du emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudiak ezarritako betebeharrak betetzen dituela, beren ezaugarri espezifikoen arabera, eta ezartzen diren jarduketen mende jarri beharko da horiek egiaztatzeko.

Horrez gainera, erakunde onuradunak modu justifikatuan adierazi behar izango du ea, bere ustez, diruz lagundutako proiektuaren helburua ondo bete den.

2. Egindako jardueren kostua frogatzen duen memoria ekonomikoa; osagai hauek eduki behar ditu:

- Dirulaguntza jaso duen proiektuari egotzi beharreko diru sarreren eta gastuen egoera orria, 1. eranskineko ereduan egina.

